



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

Francisco Michelena Celayeta.
Jose Maria Michelena Erasun.
Ezekiel Loiarde Santesteban.
Imanol Baleztena Elizalde.

2017ko irailaren 26an, 18:00etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohiko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel Jose Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkuretako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartzen dira aktak.

2. LAU POLIGONOKO 68 PARTZELARI BURUZKO ERREKLAMAZIOA.

M.A.B.k eskaera aurkeztu zuen, Katastroko 4 poligonoko 68 partzela osatzen duen lursailaren mugak aldatzeko: eskriturretan jartzen du errekarekin mugatzen duela eskuin aldean.

Alkateak hitza hartu du esateko Nafarroako Gobernuak txosten historikoa eman zuela, Udalak eskatuta. Gainera, adierazi du mugen eta azaleraren aldaketa egiteko prozedura abiarazi zuela Udalak eta txostena eman zuela Nafarroako Gobernuak konklusio honekin: ezinezkoa da aurkeztutako agirietatik ondorioztatu katastro aldaketa bidezkoa den ala ez. Beraz, txostena ikusirik eta Udal ondareko ondasunak babesteko ardura duela kontuan izanik, katastroa dagoen bezala uztea proposatu du alkateak.

Jarraian, idazkariak argitu du 2 txostenak Lur-Ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuak eman zituela eta hasitako prozedura izan zela lurzatien eta higiezin-unitateen mugen eta azalaren aldaketa grafiko esanguratsua egiteko prozedura (Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legearen 31. artikulua). Bigarren txostenak dio kasu honetan ez dela beharrezkoa aipatutako prozedura jarraitzea, nahikoa dela 28. artikuluko prozedura arrunta jarraitzea, erreklamaturako lursaila pribatua ala publikoa den erabaki ostean (Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea); agiriak aztertutik, alkateak azaldutako konklusiora heltzen da txostena.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da A. andreak eskatutakoa ukatzea, txostenak dioen bezala, ezin delako ondorioztatu katastro aldaketa bidezkoa den ala ez.

3. FRONTOIA.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Alkateak adierazi du toki estali baten beharra dagoela Zubietan eta pentsatu dela plaza zati bat estali daitekela, *Maistraren etxea* bota eta frontisa atzeratuz. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da:

- Txosten teknikoa eskatzea Patxi Chocarro arkitektoari.
- *Maistraren etxeko* maizterrei azaltzea lehenbailehen Udalaren asmoa.
- Diru-laguntzak bilatzea.
- Behin eskuetan izanda txosten teknikoa, bilera informatiboa egitea herri mailan.

4. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:

- 2017/55 zenbakia, 2017ko uztailaren 5ekoa, zeinean erabaki baitzen M.S. eta N.E.ri baimena ematea eskolako beheko solairua erabiltzeko, ludoteka zerbitzua emateko bertan uztaila eta abuztuko lehendabiziko hamabostaldietan.
- 2017/56 zenbakia, 2017ko uztailaren 13koa, zeinean erabaki baitzen F.J.M.ri lizentzia ematea 4 poligonoko 870 partzelako lurreko montoiak zabaltzeko.
- 2017/57 zenbakia, 2017ko uztailaren 13koa, zeinean erabaki baitzen B.E.ri ukatzea eskolako goiko gela erabiltzeko baimena.
- 2017/58 zenbakia, 2017ko uztailaren 14koa, zeinean erabaki baitzen F.J.M.ri lizentzia ematea *Larraineko Iturriko* teilatua konpontzeko.
- 2017/59 zenbakia, 2017ko uztailaren 14koa, zeinean erabaki baitzen *Herriko Ostatua* ixteko ordutegia luzatzea bestetan.
- 2017/60 zenbakia, 2017ko uztailaren 19koa, zeinean erabaki baitzen J.C.ri lizentzia ematea *Elizetxea* etxeko fatxadak pintatzeko.
- 2017/61 zenbakia, 2017ko uztailaren 19koa, zeinean erabaki baitzen *Larrañeko ardirborda* eraberritzeko emandako lizentziaren epea luzatea.
- 2017/62 zenbakia, 2017ko uztailaren 26koa, zeinean erabaki baitzen P.T.ri errekeritzea *Borraldan* egiten ari zen obrak gelditzea.
- 2017/63 zenbakia, 2017ko abuztuaren 10ekoa, zeinean erabaki baitzen *Errandonea Taberna* ixteko ordutegia luzatzea abuztuaren 13an.
- 2017/64 zenbakia, 2017ko abuztuaren 10ekoa, zeinean erabaki baitzen *Errandonea Taberna* ixteko ordutegia luzatzea bestetan.
- 2017/65 zenbakia, 2017ko abuztuaren 16koa, zeinean erabaki baitzen Alkatezaren eginkizunen eskuordetzea 7 eguneko mugarekin.
- 2017/66 zenbakia, 2017ko abuztuaren 17koa, zeinean erabaki baitzen L.M.E.ri lizentzia ematea pellet estufaren ke irteera jartzeko Errekaldea 19 etxeko teilatuan, tximiniaren tutua fatxadan jarrita.
- 2017/67 zenbakia, 2017ko abuztuaren 17koa, zeinean erabaki baitzen S.O.ri lizentzia ematea *Mindegia* etxeko teilatua erreteiltatzeko.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

- 2017/68 eta 68A zenbakiak, 2017ko abuztuaren 18koak, zeintzuetan erabaki baitzen Zubietako Errotan inbertsioak egiteko diru-laguntzak eskatzea Nafarroako Gobernuari.

- 2017/69 zenbakia, 2017ko abuztuaren 24koa, zeinean erabaki baitzen P.T.ri lizentzia ematea sukaldeko pareta bat bota eta metro karratu batean azulejoa jartzeko, gurpil-aulkia sartu ahal izateko.

- 2017/70 zenbakia, 2017ko abuztuaren 24koa, zeinean erabaki baitzen oihan aprobetxamenduko fidantzaren itzulpena ukatzea J.M.V.ri.

- 2017/71 zenbakia, 2017ko abuztuaren 24koa, zeinean erabaki baitzen E.D.i lizentzia ematea *Pasaitzako goiko etxeko* sarrerako atea aldatzeko.

- 2017/72 zenbakia, 2017ko abuztuaren 28koa, zeinean erabaki baitzen J.L.ri lizentzia ematea *Ferminenea baserian* (4 poligonoko 863 partzela) ur biltegi berria jartzeko.

- 2017/73 zenbakia, 2017ko abuztuaren 28koa, zeinean erabaki baitzen P.T.ren aurkako espediente zigortzaileari hasiera ematea, obrak egiteagatik beharrezkoa den lizentziarik gabe.

- 2017/74 zenbakia, 2017ko abuztuaren 31koa, zeinean erabaki baitzen J.B.S.i itzultzea fidantza; *Garardi* parajearen oihan aprobetxamendua ateratzeko ordaindu zuen hura.

- 2017/75 zenbakia, 2017ko abuztuaren 31koa, zeinean erabaki baitzen J.B.S.i lizentzia ematea *Errekaldeko bordako* teilatuko teila batzuk aldatzeko, teila zaharrak berrerrabilita.

- 2017/76 zenbakia, 2017ko abuztuaren 31koa, zeinean erabaki baitzen M.M.ri lizentzia ematea *Azkatea baserriko* abeltzearen zoruan hormigoia botatzeko.

5. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren ganean geratu da Udalbatza: mendizainak egin duen ikuskapen-akta, 4 poligonoko 993 eta 995 lursailetan obra-hondakinak eta zaborrak bota direlako; Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduko baimen eskaerak — J.L.L. eta J.T.ena—; sutarako egur loteak markatzeko eskaera; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso aprobetxamenduko baimenak —I.J., F.J.M., J.T. eta J.L.S.i—; *Gorospillagako* egur lotea ateratzeko epearen luzapena; Lurralde eta Paisaia Zerbitzuak emandako txosten teknikoa, *Uraren Ibilbidean* egin nahi diren obrei buruz; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen Ustiapenen Erregistroan izandako mugimenduak —M.L.E. eta F.J.L.ren bajak—; Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusiaren 482E/2017 Ebazpena, zeinean erabaki baitzen *Axerburu* izeneko landa etxea Turismoko Erregistroan inskribatzea; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2017ko uztailaren 12an emandako Ebazpena, obrak egiteko baimena eman ziona Maderas Santeteban SL-ri; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2017ko uztailaren 12an emandako Ebazpena, baso aprobetxamendua ateratzeko baimena eman ziona Maderas Santeteban SL-ri; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2017ko ekainaren 30ean emandako Ebazpena, baso aprobetxamendua ateratzeko baimena eman ziona P.H.ri; Ingurumen eta Lurraldearen



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Antolamenduko zuzendari nagusiaren 315/2017 Ebazpena, Agenda 21-eko diru-laguntzei buruzkoa; Eskolan estufa jartzeko diru-laguntza onesten duen Ebazpena; 2018ko baso-lanak egiteko eskatu den diru-laguntza; hiri-eremuak berreskuratzeko diru-laguntzen oinarriak.

2. Alkateak hitza hartu eta gai hauek azaldu ditu:

- Kioskoaren toldoa aldatu behar da.
- Toki Azpiegituren Plangintzako diru-laguntzak.
- Ekintzak egingo dira Zubietan landa eremuko emakumearen nazioarteko egunaren arira.

6. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 19:20 direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.